

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektuak funtziona dezan beharrezkoak ditugun elementuak honako hauek dira: Panel solarrak, egurrezko taulak, burdinezko mahai hankak, bateria elektrikoak eta banaketarako garraioa (kamioiak). Horien artean hainbat baliabide mota bereizten dira.

Batetik, baliabide fisikoak lehengaiak eta garraioa izango lirateke: mahaietarako egurrezko taulak, burdinezko hankak, bateria elektrikoak, garraioa... Bestalde, baliabide intelektualak gure garatutako ideiak izango lirateke, kasu honetan mahai elektrikoa, barneratutako bateria kargadore batekin. Hirugarrenik, gure proiektua gauzatzeko erabiliko ditugun finantza baliabideak subentzioak izango dira.

Azkenik, giza baliabideak lau lanpostuetan banatuko ditugu: hasteko, Junek, bezeroekiko harremanak jorratuko ditu. Bestetik, Maialenek eta Saioak, marketing-a eta alderdi kreatiboa landuko dute. Amaitzeko, Aimarrek paketeak bezeroengana iristen direla ziurtatuko du, horrez gain, almazena antolatuko du.